

ALKATE DEKRETUA 13/2019

AURREKARIAK

1. 2019ko urtarrilaren 22ko 5/2019 alkate-dekretu bidez, LANBIDE bidez Zerbitzu Anitzeko Langilea epe zehatzerako kontratatzeko prozesua hastea erabaki zen.

2. 2019ko urtarrilaren 22an, Etxebarriko Udalak Eskaintza-Eskabidea aurkeztu zuen LANBIDEN. Eskabide horretan, hautagaiak nahitaez bete beharreko baldintzez gain, kontratuaren ezaugarriak jaso ziren.

3. Hautagaiak aurkezteko 10 eguneko epea eman zen, iragarkia publikatu zen egunetik aurrera. Epe horretan zehar 28 hautagai aurkeztu dira.

4. 2019ko otsailaren 11ko 7/2019 alkate-dekretu bidez, Balorazio Batzordeak hautagaiak lehentasunez sailkatzeko kontuan hartu behar zituen irizpideak zeintzuk ziren finkatu zen.

5. 2019ko otsailaren 13an Balorazio Batzordea bildu zen, eta 7/2019 alkate-dekretuan jasotako irizpideak aintzat hartuz, ezinbesteko baldintzak betetzen zituzten hautagaien sailkapena egin zuen lerro hauen azpian jasotzen den moduan:

	Zorion Antxustegi	Basilio Rodriguez	Arkaitz Olo	Oroitz Torrealdei	Francisco Javier Villegas	Iker Bilbao	Iñigo Enbeita	Zalao Zenarruza beitia
ERAIKUNTZAN ESPERIENTZIA	8	1,08	2,92	0	0,5	1,92	0	0
LOREZAINZAN ESPERIENTZIA	4	1,67	0	1,92	0	0,17	0	0
AROTZERIAN ESPERIENTZIA	0	1,08	0,25	0	0	0	0	0
PRESTAKUNTZA	0	0	0	3	0	1	0	0
C GIDABAIMENA	3	3	3	0	3	0	0	0
GUZTIRA	15	6,83	6,17	4,92	3,5	3,09	0	0

HORI GUZTIA DELA ETA, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.g artikulua ematen dizkidan eskumenekin bat etorriz,

EBATZI DUT

LEHENENGO.- Onartzea, Balorazio Batzordeak 2019ko otsailaren 13an egindako sailkapena, eta hautagaien lehentasunezko ordena horrela finkatzea:

1. Zorion Antxustegi Garitagoitia
2. Basilio Rodriguez Dominguez
3. Arkaitz Ollo Balerdi
4. Oroitz Torrealdai Ormaetxea
5. Franciso Javier Villegas Canales
6. Iker Bilbao Ayastui
7. Iñigo Enbeita Eguiluz
8. Zaloa Zenarruzabeitia Iruguenpagate

BIGARREN.- Ebazpen hau Etxebarriko iragarki tauletan eta Udalaren web orrian argitaratzea 10 egun balioduneko epean zehar, hala nahi duenak alegazioak edo erreklamazioak jartzeko aukera izanik, jendaurreko informazioak irauten duen bitartean.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du. Hala ere, horren kontra **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** jar dezakezu administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunean hasita **bi hilabeteko epean**. Guzti hau bat dator uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 8 eta 46 artikuluekin, baita Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.2 artikulua ere.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazi zaizun ebazpenaren kontra **aukerako berraztertze-errekurtsoa** jarri dezakezu ebazpena eman zuen organo berean, jakinarazpen hau jasotzen den egunetik **hilabeteko epean**

Etxebarria, 2019ko otsailaren 19a

Alkatea
-Jesús Iriondo Lejardi-

